

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

ARLOA: LURRALDE GARAPEN JASANGARRIA

Azpiarloa: Zerbitzuak

Zerbitzu Unitatea: Hiri- eta Landa-Eremuko Mantentze-Lanak

VI-10191 Ehiza-barrutia – Barrutia berritzea, berritu zenetik 10 urte igaro ostean. Ukitutako lurzatieen jabetza baimentzea

2015eko abenduaren 10ean, 313 Foru Agindua eman zen (Laudioko Udalaren sarrera-erregistro 14.813 zk., 2015eko abenduaren 17koa), zeinaren bidez berritu baitzen VI-10.191 matrikula zenbakia duen “Coto de caza de Llodio / Laudio Ehiza esparrua” izeneko ehiza-barrutia, 3.742 hektareakoa, hamar urteko iraupenarekin.

2025eko apirilaren 10ean ehiza-barrutiaren iraupena amaitzear dagoenez, alkate-udalburuaren 601. Dekretua eman da. Horren bidez, ehiza-barrutia berritzeko behar diren izapideak hasi dira, eta iragarki honen eranskinean adierazitako lursail guztiak sartu dira, titulartasun pribatukoak zein publikoak. Horretarako, eraginpeko lursailen ehuneko 90 duten jabeen baimena behar da gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ehizari buruzko martxoak 17ko 2/2011 Legearen 21. artikulua arabera.

Lurzati publikoen artean, Laudioko Udalaren jabetzako onura publikoko mendi hauek daude:

- 72. zenbakia: Ameztui.
- 73. zenbakia: Arraño Goienuri.
- 74. zenbakia: Arraño Larrea.
- 75. zenbakia: Iñarrondo.
- 76. zenbakia: Mostatxa-Pagolar.
- 77. zenbakia: Zenagortagana-Urkitza.

Horrela, iragarki honen bidez, aurreko guztia jasota geratzen da, ukitutako lurren jabetzak dagokion baimena eman dezan. Nolanahi ere, baimen hori isilbidez emango da, Laudioko Udalaren kontrakoa idatziz adierazten ez bada, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hogeita hamar egun balioduneko epean. Horrekin, Udalak baimena izango luke aipatutako lursail edo finka guztiak ehiza-barrutian sartzeko, baldin eta haien jabetzak ez badu aurkakotasunik adierazten dagokion epean.

Laudio, 2025eko apirilaren 11

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ

